

Jose Mari Pato: "Harria uzteko garaia iritsi zait"

Jose Mari Pato, 43 urteko harrijasotzaile ermuarrak, 28 urteaz geroztik bere kirola izan dena uztea erabaki berri du. Adinak ez du barkatzen, nahiz eta dohaiak soberan izan. San Martinen inguruan antolatutako herri-kirol jaialdia izan du bere hitzetan plazara ateratzen den azkenengo aldia. Hala ere, aurrerantzean ez du harrijasotze mundua erabat baztertuko, bere seme Jose Mari ere hortxe baitabil bere pausuak jarraitu nahian.



Pato, erdian, lankide eta lagun kuadrilla ederraren artean.

DROGETENITTURRI- NOLA ERABAKI ZENUEN HARRIJASOTZAILE IZATEA?

J.M.P.- Kasualitate hutsa izan zen. 28 urte nituela, Onekaren omenez, Batzokian 100 kiloko harri zilindrikoaz txapelketa bat antolatu zuten, eta animatu egin nintzen. Bertara joan eta hiru minutuko txandadan 16 jasoaldi eman nizkion. Hantxe ezagutu nuen Jose Antonio Gisasola "Zelai".

D.- ZELAI ETA BESTEEN LAGUNTZA EZIN BESTEKOA IZAN DA...

J.M.P.- Bai, hala da. Batzokiko txapelketa hartatik aurrera, Zelairekin entrenatu izan dut. Goraipatu nahi ditut baita ere, Pedro Saralegi eta bere emazte Maria Angeles, behar nituen harriak eta jantziak egin izan dizkidate eta. Ezin ahaztu baita, Siriakoren laguntza, beti hortxe egon baita.

D.- HARRIJASOTZAILE IZATEAK ZER EMAN DIZU?

J.M.P.- Puntako harrijasotzailea bazara badago dirua irabazteko aukera, baina nire kasuan, nahiz eta bizi-

tzeko haina ez eman, diruaz gain bazter asko eta lagun on asko egiteko aukera eman dit. Esperientzia aberasgarria izan da.

D.- APUSTUREN BAT NOIBAIT EGINA IZANGO ZARA...

J.M.P.- Bai, nire bizitza osoan bost apustu egin ditut. Lau irabazi ditut eta bakarra galdu, lesio baten erruz. Gogoan dut bereziki, egin nuen aurrenekoa, Etxebarrian, Txartududiren aurka. 175 kiloko harri errektangularrarekin 10 jasoaldi eman ostean, gizon proban egin genuen, 28 metrotan harria eramanez. Errez samar irabazi nuen hura.

D.- LESIO KONTUTAN ZER MODUZ? EZUSTERIK IZAN AL DUZU NOIZBAIT?

J.M.P.- Hortan zortea izan dut, ez baitut sekula lesiorik izan. Jasan nuen ezusteko handiena, Goenatxo zenaren omenez Azpeitian egin zen jaialdian; harriarekin batera erori nintzenekoa izan zen. Zorionez, ez zen ezer gertatu.

D.- ZEINTZUK DIRA ZURE HISTORIALEKO MARKARIK ONENAK?

J.M.P.- Alde batetik, 175 kiloko harri esferikoari emandako zazpi jasoaldiak, Amezketako harriari emandako 10 jasoaldiak, eta azkenik Amezketako harriarekin Bizkaian jasoaldi gehien emandako gizona izatea. Etxean 261 kilo altxatu ditudan arren, 251 kilo dira plazan altxa dudana kilo kopuru handiena.

D.- ZERK BULTZATU ZAITU HARRI JASOTZEA UZTERA?

J.M.P.- Adina izan da errudun nagusia. Harri txikiekin aritzeko indarra soberan dudana arren, arnasa eta bizkortasuna urri. Harri handietarako berriz, adinak ez du barkatzen. Azkenengo txapelketan gainera ez dut nire burua aurkeztu, bakarrik erakustaldiak egin izan ditut.

D.- HEMENDIK AUERRERA ZER?

J.M.P.- Nere seme Jose Mari ere hortxe dabil aspalditik, eta laguntza ere beharko du. Ez dut beraz harria alde batera utziko.

Testua: Asier Ibaibarriaga
Argazkiak: Santos Vega

TXALAPARTA
TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

1997ko AZAROA

Kirola - moda
HOBBY SPORT
HOBBY SPORT
HOBBY SPORT

Probaleku, 8
Tel. Fax: (943) 17 09 13 48260 Ermua